

ZIURTAGIRIETAN NOLA ERABILI SINTAGMA BARRUKO APOSIZIOAK ETASINTAGMA APOSATUAK

Gasteizen, 2001eko otsailaren 6an.

Jesus Mari Makatzaga
Gramatika batzordeko idazkaria

Jesus Mari Agirre jauna, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzua.

Agirre jauna, agur:

Zuregandik jaso dugun galdera baten erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez.

Sintagma barruko aposizioaren eta sintagma aposatuen erabileraz egiten da galdera: ea 2) aukera hobetsi behar den ala 1) ere lasai erabil daitekeen.

1. Pello Urzelai Gabiola Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek

ziurtatzen dut ...

2. Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek

ziurtatzen dut ...

Luze eztabaidatu ondoren era honetara laburbilduko genuke Gramatika batzordearen iritzia:

- *Ziurtatzen dut*, lehen pertsonan, erabiltzeak zailago bihurtzen du kontua. *Ziurtatzen du* erabili ahal izateak, berriz, ikaragarri erraztuko luke kontua. Hirugarren pertsonarekin aukera biak lirateke berdin egokiak.

- 1'. Pello Urzelai Gabiola Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkariak
ziurtatzen du ...

- 2'. Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkariak,
ziurtatzen du ...

- *Ziurtatzen dut*, lehen pertsonan, eman behar izanez gero, zuk emandako bi aukeren artean bigarrena hobesten dugu (*Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek, ziurtatzen dut ...*); horrekin batera, eta seguruenik egokiagoa, *nik* izenordaina aurretik erantsita daraman egitura legoke: *Nik*,

Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek, ziurtatzen dut ...

Lehenbiziko aukera ere erabil daiteke; txartzat eman gabe ere, bitxiagoa litzateke, ordea, zenbait batzordekiderentzat: ez du jaso, beste biek bezala, guzti-guztien adostasuna. Txarra litzateke, adibidez, goiko 1) egitura, aurretik *nik* izenordaina erantsiz gero. Bestalde, zenbaitentzat bitxia da etenik gabe ematea, (...) *naizen honek* formula erabiliz.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.